

Proiektuetarako jarduerak | Inklusioa

Bigarren Hezkuntza. 12 - 18 urte

Europa eta... akzioa!


	Bigarren Hezkuntza 16 - 18 urte
	Maila Ertaina
	Denboralizazioa 17 saio
	Kideak Gehienez 4-5 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Ikasleek proiektuan parte hartzen duten gainerako lurraldeez zer dakiten (indarguneak eta ahulguneak) azalduko dute; eta hortik abiatuta, haiei buruzko informazioa bilatuko dute (testuak, irudiak, bideoak, bestelakoak), lurralde bakoitza definitzen dituen estereotipoei eta haien zergatiari buruzko datuak hautatuz (alderdi kulturalak eta topikoak).

Ikastetxe bakoitzak irudiekin **collage bat** eta parte hartzen duten gainerako sozioei buruzko hitz-hodei bat sortuko ditu, biak ala biak tresna digitalak erabiliz. Inprimatu eta ikastetxeko paretan jarriko dira.

Estereotipoak eszenaratuko dira, **antzezpen motz batean**, ahal den neurrian moztarrok eta apaingarriak erabiliz. Antzezpenak **bideoan** grabatuko dira.



JARDUERAREN XEDEA

- Inklusioa eta aurreiritziak gainditzea lantzea, elkar ezagutuz eta gure lurraldeei buruzko estereotipoak aztertuz
- Pentsamendu kritikoa eta tolerantzia eta errespetua bezalako balio demokratikoak sustatzea, xenofobiaren aurka borrokatzeko eragile gisa
- Bereizkeriak gainditzea antzerkia gorputz-adierazpenerako eta heziketa emozionalerako modu artistiko gisa erabiliz

JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea Prestatzea

1. Urratsa. Erregistroa

Dozentek ikasleak proiektuaren TwinSpace-n erregistratuko dituzte eta sartzeko gakoak jasotzen dituen dokumentua gordeko dute. Ondoren, ikasle bakoitzari haien gakoak emango dizkiete.



2. Urratsa. Nazioarteko taldeak sortzea

Dozenteek ikasleak nazioartek ekipoetan antolatzen dituzte; taldeetan lurralde bakoitzeko 2 edo 3 ikasle egongo dira, parte hartzen duen lurralde-kopuruaren arabera. Gomendatzea oso ekipo handiak ez izatea eta gehienez ekipo bakoitzean 6 ikasle egotea.

Ekipo bakoitzean zein ikaslek parte hartuko duten jakitera emateko taula bat prestatuko da:

	Equipo 1 País que investigan: Noruega Tutor:	Equipo 2 País que investigan: Turquía Tutor:	Equipo 3 País que investigan: Francia Tutor:	Equipo 4 País que investigan: España Tutor:
Noruega		Alumno1 Alumno 2 ...	Alumno1 Alumno 2 ...	Alumno1 Alumno 2 ...
Turquía	Alumno1 Alumno 2 ...		Alumno1 Alumno 2 ...	Alumno1 Alumno 2 ...
Francia	Alumno1 Alumno 2 ...	Alumno1 Alumno 2 ...		Alumno1 Alumno 2 ...
España	Alumno1 Alumno 2 ...	Alumno1 Alumno 2 ...	Alumno1 Alumno 2 ...	

3. Urratsa. Orri nagusia eta ekipoentzako azpi-orriak prestatzea

Dozenteek hainbat orri sortuko dituzte TwinSpace-n proiektuaren garapena antolatzeko. Honako edukiak jasoko ditu, nahiz eta gero beste batzuk gehitu ahalko diren:

- **Proiektuaren planifikazioa** duen orria, honakoak jasoko dituen: xedeak, denboralizazioan, egin beharreko jarduerak eta parte hartuko duten lurralde eta ikastetxeak
- **Nazioarteko ekipoak** eta ekipoaren tutorea izango den dozentea jasotzen dituen **taula** duen orria

- Nazioarteko ekipoentzako **azpi-orri bana**, elkarrekin komunikatu eta informazioa partekatzeko erabiliko dutena. Haien avatar pertsonalizatuak igoko dituzte. Esteka bat gehituko da **ekipoaren Forora**
- **Bideoen** orria, lurraldeen estereotipoak irudikatzen dituen
- Ikastetxeetan egindako **erakusketen** argazkiak jasoko dituen orria
- **Parte hartzen duten lurralde kideen** zerrenda duen orria
- Haietako **bakoitzarentzako azpi-orria**, ekipo bakoitzak sortutako collagea eta hitz-hodeia izango dituen.



4. Urratsa. Materialen karpetak prestatzea

Dozenteek honako karpetak sortuko dituzte TwinSpace-ko **Materialak** moduluan:

- Proiektuaren **Dokumentuak** gordetzeko karpeta bat
- Ekipo bakoitzarentzako **Irudiak** karpetak
- Amaierako produktu izango diren **collageak sortzeko Irudiak**
- Amaierako produktu izango diren **hitz-hodeiak** sortzeko karpetak
- **Erakusketetako** argazkiak sortzeko Irudiak karpeta
- **Bideoak-Antzezpenak** karpeta



5. Urratsa. Foroak prestatzea

Irakasleek hainbat foro irekiko dituzte:

- ... **Ekipoaren Foro** bat elkarrekin komunikatzeko eta ikertu beharreko lurraldeari buruzko informazioa partekatzeko
- Lurralde bakoitzaren **...-go Foro** bat kulturari eta izateko moduari, topikoei eta estereotipoei buruzko kontuak komentatzeko
- Amaierako **Ebaluazio Foro** bat proiektuaren garapena baloratzeko



2. Fasea: Jarduera garatzea


1. Urratsa. Proiektua eta TwinSpace aurkeztea (3 saio)

Dozenteak **proiektua eta kideak aurkeztuko ditu**; parte hartzen duten ikastetxeen webgune instituzionalera sartuko da. Kideen lurraldeak mapan kokatuko dira.

TwinSpace lan egiteko tresna gisa aurkezten da. Irakasleak TwinSpace-n sartzeko gakoak (erabiltzailea eta pasahitza) banatuko dizkie ikasleei, azken horiek **haien profilak editatu eta osatuko dituzte** eta haien ekipoarekin harremanetan jarriko dira.

Ikasle bakoitzak egin beharrekoak:

- Ikasle bakoitzak **bere aurkezpena idatziko du**: herria, jaiotza-lurraldea, hobbyak, familia, baina telefonoa edo posta-helbidea bezalako datu pertsonalki ez
- **Profilera argazki bat igoko du**, edo, bestela, irudikatzen duen irudi bat
- Aurkezpenaren orrira jo eta **bere ekipoa ezagutuko du**.
- Bere taldekideei **mezuak utziko dizkie**, era positiboan eta interakzioa sustatuz, haien hizkuntzetan hitzak edo mezuak idatziz
- Haien ekipoa zein den jakin eta gero, **ekipoaren azpi-orrira joko dute** une horretatik aurrera hor lan egingo baitute



2. Urratsa. Avatarrak sortzea eta ekipoaren azpi-orrira igotzea (1 saio)


Nazioarteko ekipoak, TwinSpace erabiliz (mezuak eta txata), komunikatzen eta antolatzen hasiko dira.

- Ekipo bakoitzak bere **avatar pertsonalizatua diseinatuko du**. Horretarako, <http://avachara.com/portrait/> edo antzeko programak erabil daitezke
- **Avatarrak** ekipo bakoitzaren azpi-orrian **argitaratuko dira**
- Ekipoek haien **Foroa** erabiliko dute elkarrekin komunikatzeko
- Ikasleek ekipoa eta TwinSpace erabiliz avatarrak nola diseinatzen dituzten agertzen duten **argazkiak egingo dira**
- **Proiektuaren Egunerokoan** iruzkinak eta sarrerak egingo dira

3. Urratsa. Collagea eta hitz-hodeia sortzea (4 saio)

Urrats honek hainbat ataza barne hartzen ditu eta gutxi gorabehera 4 saiotan egingo dira. Komeni da irakasleek TwinSpace-ra noizko igo behar diren adostea.

- Ekipo bakoitzak **ikertu behar duen lurraldeari buruzko informazioa bilatu eta materiala jasoko du** eta, ondoren, ekipoaren azpi-orrira igoko du
 - Ekipo batetako kide guztiek ikertzea egokitu zaien lurraldearen **indarguneak eta ahulguneak** bilatuko dituzte
 - Lurraldearen nortasunaren ezaugarriak: **estereotipo** tradizionalak eta **topiko** klasikoak
 - **Irudiak jasoko dituzte** eta ekipoaren azpi-orrira igoko dituzte
 - Ikertzen ari diren lurraldea definitzen duen **hitz-zerrenda bat** idatziko dute
- Irudi guztiekin **collage digital** bat sortuko du. Programa bat erabiliko du horretarako, com, Fotor.com, Photofancy.es edo antzeko bat. Ekipo bakoitzak hainbat egin ditzake. Ondoren, lurralde horren azpi-orrira igoko du.
- Lurraldearen nortasuna definitzen duten hitzekin **hitz-hodei bat** sortuko du. Programa digital bat erabiliko du horretarako, com, Wordclouds.com, wordle.net edo antzeko bat. Ekipo bakoitzak hainbat egin ditzake. Ondoren, lurralde horren azpi-orrira igoko du.
- **Proiektuaren Egunerokoan** iruzkinak eta sarrerak idatziko dira lan-jardunaldiak nola garatu diren azaltzeko.



4. Urratsa. Antzetzea eta bideoak grabatzea (3 saio)

Lurralde bereko talde bakoitzak **bideo bat grabatuko du gainerako lurralde kideei buruz ikertu dituen topikoak eta estereotipoak antzetzuz.**

- **Mozorroak eta antzektokiak prestatuko dira.** Mozorro sinpleak izan daitezke, baita proiektatutako irudiak eszenatoki gisa erabili ere.
- Beste aukera bat **pantailan proiektatuko diren irudi eta testuekin aurkezpen bat** egitea da. Ikasleek hitz egin gabe edo elkarriketa motz batekin eszenaratu dezakete.
- Grabatu eta gero, **editatu eta** plataformaren batean **argitaratuko dira**, [Vimeo](#) edo [Youtube](#) plataformetan adibidez.
- **TwinSpace-ko** bideoen karpetara igoko dira eta horretarako ireki den orrian txertatuko dira.



Norway

https://youtu.be/rj3_8qZ_39c

Ivana Paulikova



FRANCE

<https://youtu.be/c399eAmyluQ>



SPAIN 1

<https://youtu.be/S5ITLKnV1iw>

ozczestochowa

5. Urratsa. Foroetan parte hartzea (2 saio)

Urrats honen xedea Europako gainerako lurraldeetan guri buruz duten irudian zer den egia eta zer gezurra aztertu eta komentatzea da.

- Lurralde bakoitzak **collageak eta hitz-hodeiak** ikusi eta aztertuko ditu.
- Bideo guztiak igo direnean, **lurralde bakoitzak gainerakoek haiei buruz grabatu dituztenak ikusiko ditu**. Ondoren, aztertu, komentatu eta eztabaidatuko dituzte.
- **Foroetan iruzkinak** idatziko dira bideoetan, collagetan eta hitz-hodeietan ikusitakoari buruz.

6. Urratsa. Lurraldeen collage eta hitz-hodeien erakusketa (2 saio)

Ikasleek eta irakasle koordinatzaileek ikastetxearen pareta batean **horma-irudia** prestatuko dute:

- TwinSpace-n argitaratutako collageak inprimatuko dira.
- Hodei-hitzak inprimatuko dira.
- Proiektuaren izenburua eta eTwinning, Erasmus+ eta proiektuaren beraren logotipoak marraztu, moztu eta itsatsiko dira.
- Collageak, hitz-hodeiak, proiektuaren izena eta logotipoak dituen **horma-irudia egin eta erakutsiko da**.
- **Argazkiak egiten dira eta:**
 - **Erakusketen Orrira** igoko dira, TwinSpace-n
 - **Proiektuaren Egunerokoan** sarrera bat idatziko da

7. Urratsa. Baloratzea eta amaierako ebaluazioa egitea (2 saio)

- **Ebaluazioaren Foroan** parte hartzea eta **Proiektuaren Egunerokoan** sarrera bat idaztea

3. Fasea: Datuak jasotzea eta jakitera ematea

- Proiektua hasten den unean bertan, **informazio orokorra, collageak eta hitz-hodei digitalak** jasotzen dituzten jarduera-orriak publiko egiten dira.
- **Proiektuaren Egunerokoa** idazten joango da eta parte hartu duen ikastetxe bakoitzean nola garatu den azalduko da. Astero, lurralde bakoitzeko ikasle batek iruzkin bat egingo du; ikasleak lanean ari direla agertzen duen argazki bat erants dezake.
- **Institutuaren webgune instituzionalean proiektuari buruzko informazioa argitaratuko da**, baita **sare sozialetan** ere, ikastetxearen Facebook edo Twitter kontuetan adibidez.
- **Ikastetxearen webgunean esteka zuzen bat jarriko da TwinSpace-ra.**

- **Ikastetxean**, departamentuek gauzatzen dituzten jardueri buruzko informazioa ematen duen **telebistan (tb)**, **collageak eta/edo bideoak argitaratuko dira**

- Collage eta hitz-hodeien **erakusketa** egingo da ikastetxean

AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)

- Gainerako lurraldeei buruzko informazioarekin egindako **collage eta hitz-hodei digital eta inprimatuak**

- Informazio hori eszenaratzeko egindako ahozko aurkezpenak edo/eta antzezpenak grabatzeko egindako **bideoak**

- Inprimatutako materialarekin egindako **horma-irudia edo erakusketa**

TWinspace-KO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK

- TwinSpace-ko profil indibidualak, orriak, TwinSpace foroa, Materialak (karpetak)
- **Avatar sortzaileak** online **diseinatzeko** programak: BeFunky.com edo antzeko bat, irudietan edo argazkietan testuak gehitzeko
- **Internet**: ikasleen lurraldeei buruzko informazioa eta argazkiak bilatzea.
- **Collageak** montatzeko programak: [com](#), [Fotor.com](#), [Photofancy.es](#) edo antzekoak
- **Hitz-hodeiak** sortzeko programak: [com](#), [Wordclouds.com](#), [Wordle.net](#) edo antzekoak.
- **Argazkiekin bideoak** montatzeko programak, adibidez Movie-Maker, [com](#) edo antzekoak; eta [Youtube.com](#) bideoa argitaratu eta TwinSpace-n txertatzeko.
- Facebook, Twitter, Google+...jakitera emateko

DENBORALIZAZIOA

- 1. Saioa: **Proiektua eta kideak** aurkeztea.
- 2. Saioa: **TwinSpace-n sartzeko gakoak banatzea. Proiektuaren Egunerokoa hastea**
- 3. Saioa: **Profilak osatzea**, taldekideekin harremanetan jartzea
- 4. Saioa: Aurkezpenak egiteko **avatarrak sortzea** eta TwinSpace-ra igotzea
- 5., 6. Saioak: Ekipo bakoitzak **ikertu behar duen lurraldeari buruzko informazioa bilatu, aztertu eta materiala jasotzea**
- 7., 8. Saioak: Topatutako informazioarekin **collage bat eta hitz-hodei bat** sortzea. Saioen eta Proiektuaren Egunerokoan idatzitako sarreren argazkiak egingo dira.
- 9., 10., 11. Saioak: Ekipo nazional bakoitzak **antzezpena** prestatu **eta bideoak grabatzea**. TwinSpacera igotzea.
- 11., 12. Saioak: **Collageak, hitz-hodeiak eta bideoak ikusi eta aztertzea**. Lurralde bakoitzak eztabaidatuko du.
- 13., 14. Saioak: **Lurraldeen Foroetan** parte hartzea
- 15., 16. Saioak: Ikastetxean **collagen erakusketa** egitea. Argazkiak egingo dira eta Proiektuaren Egunerokoan sarrera bat idatziko da.
- 17. Saioa: **Ebaluazioaren Foroan** parte hartzea.